

LAUGARREN SAILKAPEN TALDEA, TEKNIKARI LAGUNTAILEAK KATEGORIAN, ARGITALPEN ETA ARTE GRAFIKOETAKO ESPEZIALITATEAN, LAN KONTRATUDUN LANGILEAK SARTZEKO HAUTAKETA PROZESUA, 2018ko AZAROAREN 2ko ERREKTOREAREN ERABAKIAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA.

ARIKETA BAKARRA: DATA ETA LEKUA.

Deialdiaren zortzigarren eta hamabigarren oinarri orokorretan eta oinarri espezifikoren 3. puntuan jasotakoarekin bat (UPV/EHUko Errektorearen 2018ko azaroaren 2ko erabakietan), Laugarren sailkapen taldea, teknikari laguntzaileak kategorian, Argitalpen eta Arte Grafikoetako espezialitatean, lan kontratudun langileak sartzeko hautaketa-prozesuko epaimahaiak honako hau iragarri du:

LEHENENGOA.- Azterketa egiteko erabiliko den galdera sorta hautaketa-prozesuaren web orrialdean argitaratzea.

BIGARRENA.- Hautaketa-prozesuko ariketa bakarra, deialdiaren oinarri espezifikoren 3.1 atalean zehaztuta dagoena, **2019ko azaroaren 11an** izango da. **15:30etan** hasiko da azterketa. Lekua: **Bilboko Hezkuntza Fakultatean (Leioa).**

Deitutakoen akreditazioa eta Fakultatera sarrera **15:00etan** hasiko da.

Proba egiteko instrukzioak irakurtzeko unean ezin izango da inor sartu.

HIRUGARRENA.- Probaren zehaztasunak honako hauek dira: Proba teoriko-praktikoa egin behar da. Ariketa bakarra izango da, bi zatitan banatuta: zati bat teorikoa; bestea praktikoa. Zati bakoitza nahitaezkoa da, baina ez baztertzailea.

Oposizio fasean, guztira, 20 puntu lortu ahal izango dira: zati teorikoan eta teoriko-praktikoan lortutako puntuen batura izango da, eta horietako bakoitzean gehienez ere 10 puntu lortu ahal izango dira.

Oposizio fasea gainditzeko, gutxienez 10 puntu lortu beharko dira bi zatietan lortutako puntuak gehituz.

Erantzun okerrek eta erantzun gabeko galderak ez dute penalizaziorik izango.

- Lehenengo atala: Test motakoa izango da: 50 galdera (gehi erreserbarako 20), bakoitzak lau erantzun aukeran eta horietako bakar bat zuzena. Galderak argitaratutako galdera sortatik aterako dira.

Proba teoriko hau egiteko denbora: 100 minutu.

Zuzenean gehienez lor daitezkeen puntuak: 100 puntu. Ariketa honetako puntuazioa zehazteko, zuzenean lortutako puntu kopurua zati hamar (10) egingo da, eta zatidura hori izango da ariketa honen azken puntuazioa.

- Bigarren atala proba teoriko-praktikoa izango da. Zati honetan parte hartzaileak ariketa bat egin beharko du, hauen artetik hautatua:
 - a) Test motakoa: 50 galdera (gehi erreserbarako 20), bakoitzak lau erantzun aukeran eta horietako bakar bat zuzena; galderak Oinarri espezifikoko 3.1.1. atalean aipatutako galdera sorta beretik lortuak. Zuzenean gehienez lor daitezkeen puntuak: 100 puntu. Ariketa honetako puntuazioa zehazteko, zuzenean lortutako puntu kopurua zati hamar (10) egingo da, eta zatidura hori izango da ariketa honen azken puntuazioa.
 - b) Epaimahaiak gutxienez proposatuko dituen 5 kasu praktikoetako bat ebaztea, dokumentazio eta material espezifikoa erabilia. Bigarren proba honetako b atal hau ebaluatzeko, kontuan hartuko da: batez ere, proposatutako gaiarekin erakutsitako lotura maila; analisirako eta laburtzeko gaitasuna; garatutako ideian aberastasuna; argitasuna eta zuzentasuna.

Proba teoriko-praktikoa hau egiteko denbora, edozein dela ere aukeratutako ariketa: 100 minutu.

Ariketak egiteko denbora eta bitartekoak egokituko dira desgaitasuna duten eta 2018ko azaroaren 2ko erabakiaren bosgarren Oinarri Orokorrean zehaztu bezala hala eskatu duten pertsonentzat.

Gogoan izan behar da azterketara nortasun agiria (NAN), pasaportea edo gidabaimena eraman behar dela (zortzigarren Oinarri Orokorreko 8.4. atala). Boligrafo beltza edo urdina ere bai.

Leioa, 2019ko uztailaren 4a

Epaimahaiko idazkaria

Jesús Moro de Arriba